## ATAUNGO UDALA

*Iragarkia*

Ataungo udalerrian auto partekatuen «Sarecar» zerbitzu publikoan sartzeko eta zerbitzua erabiltzeko baldintzei buruzko araudiaren hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) azpiatalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, 2013ko otsailaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 38 zenbakian argitaratutakoa, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, aipatutako Ordenantza argitaratzen da.

Ataun, 2013ko apirilaren 8a.—Alkatea.

(169) (3461)

## ATAUNGO UDALERRIAN AUTO PARTEKATUEN «SARECAR» ZERBITZU PUBLIKOAN SARTZEKO ETA ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZEI BURUZKO ARAUDIA

### ZIOEN AZALPENA

Araudi honen xedea da pertsonen eta salgaien mugikortasun iraunkorrerako zerbitzu eta konponbide berriak sortzea. Ataungo herriak aitzindari izan nahi du partekatutako ibilgailuak zentzuz, eraginkortasunez eta selektiboki erabiltzerako orduan, betiere, aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko eta energia aurrezteko.

Egia esan, partekatze era horiek interes handiko jarduerak dira, batik bati, erabiltzaileei dirua aurrezteko aukera ematen dielako, atmosferara isurtzen diren gasak murrizten laguntzen duelako eta gure gizarteak dituen mugikortasun arazo larrientzako konponbidea aurkitzeko jarduera aktiboak direlako.

Horrexegatik, Ataungo Udalak ondorengo zerbitzua ezarri nahi du, pertsonen mugikortasunerako dauden modu tradizionalen osagarri gisa (garraio publikoa, oinez egiten diren joan-etorriak edo bizileta), eta bidenabar, herrigunean sartzen diren motordun ibilgailuak murrizteko.

Ibilgailu elektriko partekatuak erabiltzeko sistema auto elektrikoak alokatzeko sistema bat da, partekatze eskemetan antolatzen eta oinarritzen dena. Erabiltzaileek beharren arabera erreserba ditzakete autoak, epe motzerako alokatuta.

Hori dela-eta, gunea egokitzeko proiektua egiteko, ibilgailu elektrikoak eta sistema eragilearen hardwarea eta softwarea hornitzeko eta ibilgailu elektriko partekatuen Sarecar zerbitzua abian jartzeko beharrezkoak diren urratsak eman dira.

Ataungo Udalak ibilgailuak kargatzeko guneen kokapena aldatu ahal izango du, baita zerbitzu guneak gehitu ere. Hala, egokitzat jotzen diren bitartekoak erabilita, erabiltzaileei horren berri emango zaie.

## AYUNTAMIENTO DE ATAUN

*Anuncio*

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial del Reglamento de las condiciones para el acceso y la utilización del servicio público de coches compartidos «Sarecar» en el municipio de Ataun, al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento y publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 38, de fecha 25 de febrero de 2013, deviene en definitivo. Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art. 70-2.º de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación de dicha Ordenanza.

Ataun, a 8 de abril de 2013.—El Alcalde.

(169) (3461)

## REGLAMENTO DE LAS CONDICIONES PARA EL ACCESO Y LA UTILIZACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE COCHES COMPARTIDOS «SARECAR» EN EL MUNICIPIO DE ATAUN

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El objetivo de este reglamento es crear nuevos servicios y nuevas soluciones para la movilidad sostenible de personas y mercancías. El pueblo de Ataun desea ser pionero en el uso racional, eficaz y selectivo de coches compartidos, siempre con el propósito de luchar contra el cambio climático y de ahorrar energía.

De hecho, dichas modalidades de compartición son actividades de gran interés debido principalmente a las posibilidades de ahorro económico que ofrecen a sus usuarios/as, por su contribución en la reducción de gases contaminantes emitidos a la atmosfera y por ser prácticas activas en la búsqueda de soluciones a los graves problemas de movilidad de las que adolece nuestra sociedad.

Por eso quiere el Ayuntamiento de Ataun ofrecer este servicio, como complemento de las formas de movilidad tradicionales (el transporte público, y los trayectos a pie y en bicicleta), y con la intención de reducir la entrada en el núcleo urbano de vehículos a motor.

El sistema de uso de coches eléctricos compartidos es un sistema de alquiler, organizado y basado en esquemas de uso compartido. Los usuarios los pueden reservar según los necesiten, y alquilarlos por cortos períodos de tiempo.

A tal efecto, se han dado los pasos necesarios para proceder a ejecutar el proyecto de acondicionamiento de la zona, el suministro de los coches eléctricos y del hardware y software del sistema operativo, así como la puesta en marcha del servicio de coches eléctricos compartidos Sarecar.

El Ayuntamiento de Ataun podrá modificar la ubicación de los puntos de recarga así como ampliar los puntos de servicio, de lo que se informará a las personas usuarias a través de los medios que se consideren oportunos.

Inprimakia Ataungo Udaleko herritarrentzako arreta bulegoan eskatu ahal izango da, edo www.sarecar.net webgunetik ere jaitsi ahal izango da.

Besteak beste, erabiltzaileak galdetegia betetzerako orduan trafikoari, ibilgailuen gidaritzari eta bide segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia ezagutzen duela aitortu beharko du, eta ibilgailuak gidatzeko gaitasuna duela. Horretaz gain, gidabaimenaren jatorrizko agiria erakutsi eta kopia bat utzi beharko du.

Zerbitzu honen onuradun diren pertsona juridikoen kasuan, Ataungo Udalarekin hitzarmena sinatzen duen pertsonak izango du erabiltzaileek egiten duten erabileraren ondorioz gertatzen diren arau-hausteen eta gainontzeko gorabeheren gaineko erantzukizuna.

Eskatzaileek NANaren fotokopia (bi aldeetatik egindakoa), argazki bat, altaren kuota ordaindu izana egiaztatzen duen agiria eta bankuko datuak aurkeztu beharko ditu: Hau da, kontu korrontearen titular diren pertsonen izenak, 20 digituak eta bankuko kontuaren titularitateari buruzko egiaztagiria.

Erabiltzailea bazkide gisa egiaztatzeko orduan, Ataungo Udalak emandako agiriak kontrastatuko ditu, zuzenak direla ziurtatzeko.

Gainera, 300 euroko fidantza bat jarriko du, erabiltzaileak zerbitzuan sor ditzakeen kalteen aurrean erantzun ahal izateko, txartela itzultzeagatik erantzun ahal izateko. Erabiltzaileak zerbitzuan baja eman ostean txartela itzultzen baldin badu, Ataungo Udalak fidantza itzuliko du. Fidantzaren zenbatekoa edozein unetan aldatu ahal izango da, alkatetzako ebazpenaren bidez.

b) Era berean, eta auto elektrikoen mailegu publikoari buruzko zerbitzua erabiltzeagatiko prezio publikoa ordaintzeko, Ataungo Udalak bankuko transferentzia bidez kobratuko dio erabiltzaile bakoitzari dagokion tasa.

c) Gipuzkoako Garraioen Kontsortzioak zerbitzua kudeatzeko aukera dagoenean erabiltzaileak entitate honek emandako ordainketa txartelaren jabe izan beharko du (Lurraldebus).

d) Erabiltzaileak aldean eraman beharko du txartela zerbitzua erabiltzen ari denean. Zerbitzuaren edozein arduradunek hala eskatzen badio, txartela erakutsi beharko dio.

e) Erabiltzailearen txartela galtzen edo hondatzen bada, edo lapurtzen badute, erabiltzaileak horren berri eman beharko du berehala, txartela ezeztatu ahal izateko. Hori ezinbesteko baldintza izango da, beste txartel bat egin ahal izateko. Txartelaren galeraren edo lapurretaren berri ematen ez den bitartean txartela oker erabiltzen baldin bada, erabiltzaileak izango du horren erantzukizuna. Gainera, Udalak unean-unean ezarritako prezioa ordaindu beharko du, beste txartel bat egiteko.

f) Zerbitzuak Udalari jakinarazi beharko dio ondorengo agirietan dauden aldaketa guztiak:

a) NANa berritzea.

b) Gidabaimena berritzea, puntuak galtzea, e.a.

c) Bankuko kontua aldatzea.

*6. artikulua. Zerbitzuan baja ematea*

Erabiltzaileak zerbitzuan baja emateko, alta emateko ezarrita dagoen prozesu berbera jarraitu beharko du. Erabiltzaileari zerbitzuan baja emango zaio, berak hala eskatzen badu, edo nolanahi ere, Araudi honetan aurreikusitako arrazoien ondorioz. Hori dela-eta araututako fidantza itzuliko da.

El impreso puede recogerse en la oficina de atención al ciudadano del Ayuntamiento de Ataun, y también puede descargarse desde la página Web www.sarecar.net.

El usuario, a la hora de rellenar el impreso, deberá declarar, entre otras cosas, que conoce el reglamento sobre conducción de vehículos y seguridad vial en vigor, y que está capacitado para conducir automóviles. Además, deberá enseñar el permiso de conducción original y entregar una copia.

En el caso de las personas jurídicas beneficiarias del servicio, será la persona firmante del convenio con el Ayuntamiento de Ataun la responsable de las infracciones y demás circunstancias provocadas por los usuarios durante la utilización del servicio.

Los solicitantes deberán presentar una fotocopia del DNI (hecha por los dos lados), una fotografía, el documento que certifica haber pagado la cuota y los datos bancarios, esto es: Los nombres y apellidos de los titulares y los veinte dígitos del número de la cuenta corriente y el certificado de titularidad de la cuenta.

Antes de que el solicitante sea declarado usuario del servicio, el Ayuntamiento de Ataun contrastará los documentos entregados, para verificar que son correctos.

Además, el usuario deberá dejar una fianza de 300 euros, para poder responder ante los posibles desperfectos que se puedan ocasionar durante la utilización del servicio, y también después de devolver la tarjeta. Si el usuario se da de baja del servicio y devuelve la tarjeta, el Ayuntamiento de Ataun procederá a devolver la fianza. La cuantía de la fianza podrá ser modificada en cualquier momento mediante resolución de alcaldía.

b) En cuanto al pago del precio público correspondiente al uso del servicio de alquiler público de vehículos eléctricos, el Ayuntamiento de Ataun cobrará la tasa correspondiente a cada usuario por transferencia.

c) Cuando la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa pueda gestionar el servicio, el usuario deberá tener la tarjeta de pago proporcionada por la mencionada entidad (Lurraldebus).

d) El usuario deberá llevar consigo la tarjeta cuando esté utilizando el servicio. Si los responsables del servicio se lo piden, deberá mostrar la tarjeta.

e) En caso de pérdida, robo o deterioro de la tarjeta, el usuario deberá notificarlo enseguida, para poder invalidarla. La notificación será condición indispensable para poder hacer una tarjeta nueva. La persona usuaria se hará responsable de su uso indebido hasta el momento en que notifique su pérdida o robo. Para poder obtener una tarjeta nueva, el usuario deberá abonar la cuantía establecida por el Ayuntamiento.

f) El usuario tendrá que notificar al Ayuntamiento si hay algún cambio en su documentación:

a) DNI.

b) Permiso de conducción, pérdida de puntos del carné de conducir, etc.

c) Número de cuenta bancaria.

*Artículo 6. Darse de baja en el servicio*

El usuario, para darse de baja, deberá seguir el mismo procedimiento que el establecido para darse de alta. Se dará de baja al usuario si así lo requiere y, también, por los motivos expuestos en el presente reglamento. Después, se devolverá la fianza reglamentaria.

## III. KAPITULUA
## ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA DEBEKUAK

*9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak*

Pertsona fisiko orok zerbitzuan alta emateko eskubidea izango du, baldin eta araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen badira. Horretaz gain, ibilgailuak erabili ahal izango ditu hiri barruko nahiz hiri arteko joan-etorriak egiteko. Era berean, pertsona juridikoek ere alta emateko aukera izango dute. Horretarako, aldez aurretik, hitzarmena sinatu beharko dute Ataungo Udalarekin.

*10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak*

a) Ibilgailuen zerbitzu publikoa erabiltzen duten txartelen titularrak ordenantza honetako arau-hausteen arduradun izango dira.

b) Erabiltzaileak, erabiltzen duen bitartean, autoa zaintzeko betebeharra izango du. Ibilgailua zaintzea izango da ibilgailua arduraz erabiltzea eta kargatzeko gunetik ibilgailua dagokion kargatzeko gunera itzuli eta sistema informatikoak ibilgailua utzi dela baieztatzen duen arte zaintzea Gainera, erabiltzaileak bide zirkulazioari buruzko arauak bete beharko ditu, eta zerbitzu publikoa zuzentasunez erabili beharko du.

c) Erabiltzaileak txartela eta autoetako giltzak zaindu beharko ditu. Gainera, erabiltzen duen azkena baldin bada, autoa itxi egin beharko du. Era berean, instalazioa, autoak eta dauden tresnak ondo erabiltzeaz arduratuko da; eta gainera, erabiltzaileak zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharra izango dute.

d) Erabiltzaileak zerbitzua erabiltzeko baimenari edo araubideari buruzko akordioetan ezarritako erabilera ordutegiak errespetatu beharko ditu.

e) Ataungo Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileak ibilgailua gaizki erabiltzeagatik kalte edo galeraren bat egiten badu, ezta ibilgailuen erabiltzaileek hirugarrengoei eragiten dieten kalteen edo galeren gaineko erantzukizunik ere. Kasu horietan, txartelaren titularra izango da sortutako kalte fisiko eta materialen erantzule.

f) Erabiltzaileak Estatu, Autonomia edo Herri mailako edozein Agintaritzak edo Erakundek zehaztutako betebeharren, arau-hausteen eta zigorren aurrean erantzun beharko du.

g) Ibilgailua hartzerako orduan, ikuskatu egingo da, eta atzemandako funtzionamendu oker edo narriadura guztiak Udalari jakinaraziko zaizkio.

h) Erabiltzaileak zerbitzuko telefonora deitu beharko du berehala gorabeheraren bat antzemanez gero: Hala nola, ibilgailua erabiltzen uzten ez duten narriadurak edo hutsegiteak badaude, edo zerbitzuaren ondorioz gertatzen den edo zerbitzuari eragiten dion egoeraren batean nahastuta gertatzen bada.

i) Ibilgailuaren baldintza mekanikoei eragiten dien gorabeheraren bat gertatzen bada, edo errepidean zerbait gertatzen bada, erabiltzaileak erabiltze ordutegi barruan asistentzia zenbakira deitu beharko du. Halaber, erabiltzaileak Ataungo Udalari (edo zerbitzuaren enpresa esleipendunari) abisatu beharko dio.

j) Galtzen bada edo lapurtzen edo osten badute: Erabiltzaileak, gehienez ere bi orduko epean, Ataungo Udalean (edo zerbitzuaren esleipendun den enpresan) ibilgailua desagertu egin dela salatu beharko du. Horretaz gain, Udaltzaingoan edo Ertzaintzan ere salaketa egin beharko du

k) Ibilgailua lapurtzen edo osten badute: Erabiltzaileak, salaketa egin eta gehienez ere 24 orduko epean, edo bestela, hurrengo lanegunean, aurkeztutako salaketaren kopia bat eman

## CAPÍTULO III
## DERECHOS, DEBERES Y PROHIBICIONES DE LOS USUARIOS

*Artículo 9. Derechos de los usuarios*

Todas las personas físicas tienen derecho a darse de alta en el servicio, siempre y cuando reúnan las condiciones establecidas en el presente reglamento; y podrán utilizar los vehículos tanto en trayectos urbanos como interurbanos. Las personas jurídicas también pueden darse de alta, y para eso tienen que firmar un convenio con el Ayuntamiento de Ataun.

*Artículo 10. Deberes de los usuarios*

a) Los responsables de las infracciones detalladas en el presente reglamento serán los titulares de las tarjetas entregadas para el uso de los vehículos del servicio.

b) Los usuarios deberán custodiar los vehículos, mientras los estén utilizando. Se entiende por custodia el uso diligente del vehículo mientras se utilice, desde que se recoge hasta que se devuelve al punto de carga y el sistema informático verifica que se ha devuelto correctamente. Además, los usuarios deberán cumplir las normas de circulación vial y utilizar correctamente el servicio público.

c) El usuario deberá custodiar la tarjeta y las llaves del coche. Además, si es el último en utilizarlo, deberá cerrar el coche. Así mismo, se encargará de utilizar como es debido la instalación, los vehículos y el equipamiento.

d) El usuario deberá respetar los horarios de uso establecidos en los acuerdos sobre la licencia o la reglamentación respectiva al uso del servicio.

e) El Ayuntamiento de Ataun no será responsable de los daños y perjuicios provocados por el mal uso de los vehículos por parte de los usuarios, y tampoco de los daños y perjuicios provocados a terceros. En esos casos, será el titular de la tarjeta el responsable de los daños físicos y materiales provocados.

f) El usuario deberá responder ante los deberes, las infracciones y las sanciones determinadas por cualquier autoridad estatal, autonómica o municipal.

g) Al recoger el vehículo, el usuario lo revisará, e informará al Ayuntamiento de cualquier deterioro o mal funcionamiento que encuentre.

h) El usuario, en caso de que haya algún problema, debe llamar al teléfono del servicio; por ejemplo, si el vehículo está deteriorado o falla y no se puede utilizar, o si se ve envuelto en alguna situación provocada por el servicio o que afecte al servicio.

i) Si, debido a algún problema, se ven afectadas las condiciones mecánicas del vehículo, o si al usuario le ocurre algo yendo en carretera, deberá llamar al teléfono de asistencia, siempre dentro del horario de uso del servicio. Además, deberá informar al Ayuntamiento de Ataun (o a la empresa adjudicataria del servicio).

j) En caso de pérdida, robo o hurto, el usuario tiene la obligación de denunciar en un plazo máximo de dos horas la desaparición del vehículo al Ayuntamiento de Ataun (o a la empresa adjudicataria del servicio). Así mismo, deberá formular una denuncia ante la Policía Local o ante la Ertzaintza.

k) En caso de producirse hurto o robo del vehículo, el usuario deberá entregar al Ayuntamiento de Ataun una copia de la denuncia presentada en el plazo máximo de las 24 horas

i) Instalazioak, ibilgailuak eta dauden tresnak, baimenduta ez dauden xedeetarako edo jardueretarako erabiltzea, batez ere, gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak edo arriskutsuak badira.

j) Instalazioa, autoak eta dauden tresnak indarkeria, arrazakeria, xenofobia, beste diskriminazio eraren bat sustatzen duten jardueretarako edo gizakiaren duintasunaren aurkako jardueretarako erabiltzea

k) Erabiltzaile txartela txartelaren titular ez den pertsonaren bati lagatzea, eta batez ere, adin txikikoei.

l) Instalazioak, autoak eta dauden tresnak legaltasuna hausten duten jardueretarako erabiltzea.

## IV. KAPITULUA
## ZIGOR ARAUBIDEA

*12. artikulua. Printzipio orokorrak*

a) Araudi honen Zigor Araubidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako printzipioen arabera eta Herri Administrazioen Zigor Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen eta hori garatzen duten arauen arabera arautzen da.

b) Era berean, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluan, hori garatzen duten arauak eta araudi hau ezarriko dira.

c) Ordenantza honen bitartez araututako arau-hausteak direla-eta abiarazitako espedienteak Udal organo eskudunek izapidetuko dituzte; eta behin izapidetzea bukatu ostean, Alkate-Lehendakariak dagokion ebazpena emango du.

*13. artikulua. Arau-hauste motak*

Arau-haustetzat joko dira udalaren instalazioen, autoen eta tresnen onuradunek egiten dituzten jarduera guztiak, baldin eta horrekin araudi honetan ezarritako arauak hausten badituzte.

1. Araudi honetako xedapenen aurka egiten diren arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira.

2. Hona hemen arau-hauste arinak:

a) Erreserbatutako denbora hiru ordu baino gehiago gainditzea, eta berehala Udalari edo zerbitzuaren arduradunei horren berri ematea.

b) Zerbitzua osatzen duten instalazioei edo osagaiei arrazoirik gabe kalte arinak egitea.

c) Ataungo Udalari edo zerbitzuaren esleipendun den enpresari erabiltzailearen datu pertsonalen aldaketen berri ez ematea.

d) Araudi honi dagokion beste arau-hausteren bat ez egitea, baldin eta larritzat edo oso larritzat jotzen ez bada.

3. Hona hemen arau-hauste larriak:

a) Erreserbatutako denbora hiru ordu baino gehiago gainditzea, eta Udalari edo zerbitzuaren arduradunei horren berri ez ematea.

b) Ibilgailua erabiltzen den bitartean ez zaintzea.

c) Zerbitzua osatzen duten instalazioei edo osagaiei arrazoirik gabe kalte larriak egitea.

d) Araudi honen 11. artikuluan ezarritako debekuei jaramonik ez egitea.

i) Usar las instalaciones, los vehículos y el equipamiento para actividades o fines distintos a los permitidos, y en particular para usos molestos, insalubres, perjudiciales o peligrosos.

j) Usar las instalaciones, los vehículos y el equipamiento para actividades que promuevan la violencia, el racismo, la xenofobia o cualquier otra forma de discriminación, y para actividades que vayan en contra de la dignidad del ser humano.

k) Ceder la tarjeta de usuario a otra persona que no sea el titular, en especial a menores de edad.

l) Usar las instalaciones, los vehículos y el equipamiento para actividades ilegales.

## CAPÍTULO IV
## RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 12. Principios generales*

a) El régimen Sancionador de este reglamento se rige por los principios contenidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas y normas de desarrollo.

b) Asimismo, serán de aplicación las disposiciones contenidas en el título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, normas de desarrollo y de este reglamento.

c) La instrucción de los expedientes incoados por infracciones reguladoras en la presente Ordenanza, se llevará a cabo por lo órganos municipales competentes y, una vez finalizada, el Alcalde-Presidente dictará la resolución que proceda.

*Artículo 13. Clases de infracciones*

Se considerará infracción cualquier actividad que infrinja las normas establecidas en el presente reglamento realizada por los beneficiarios de las instalaciones, los vehículos y los equipamientos municipales.

1. Las infracciones a las disposiciones de este reglamento se clasificarán en muy graves, graves, leves.

2. Son infracciones leves:

a) Sobrepasar el tiempo reservado en tres horas, y no notificarlo enseguida al Ayuntamiento o al responsable del servicio.

b) Los actos injustificados de deterioro leve de las instalaciones y elementos que integran el servicio.

c) No comunicar al Ayuntamiento de Ataun o a la empresa adjudicataria del servicio el cambio de algún dato personal del usuario.

d) Cualquier otro incumplimiento del presente reglamento que no esté tipificado como grave o muy grave.

3. Son infracciones graves:

a) Sobrepasar el tiempo reservado en más de tres horas, y no notificarlo enseguida al Ayuntamiento o al responsable del servicio.

b) No custodiar el vehículo durante su uso.

b) Los actos injustificados de deterioro grave de las instalaciones y elementos que integran el servicio.

d) El incumplimiento de las prohibiciones del artículo 11 del presente reglamento.

Bazkideak kontratuzko betebeharrak betetzen ez baditu, Udalak, uneoro, erabiltzailearen txartela erretiratzeko edo blokeatzeko eskubidea izango du.

Arestiko artikuluan jasotako arau-hausteak egiten dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei ondoko zigorrak jarriko zaizkie, dagokion espedientea izapidetu ondoren:

a) Arau-hauste arinak: Bostehun eurora arteko (500,00 €) isuna.

b) Arau-hauste larriak: Bostehun euro eta zentimo bateko (500,01 €) isunetik mila eta bostehun eurora arteko (1.500,00 €) isuna.

c) Arau-hauste oso larriak: Mila eta bostehun euro eta zentimo bateko (1.500,01 €) isunetik mila eta bostehun eurora arteko (3.000,00 €) isuna.

Ezarritako isunez gain, bidezkoak diren kalte-galeren gaineko kalte-ordainak ezarri ahal izango dira.

Araudi honetan ezarritako arau-hausteen ondorioz, erabiltzaileari baja eman ahal izango zaio zerbitzuan. Baja emateko egindako arau-haustea izango da kontuan.

a) Oso larriak: Bost urtera arteko baja Zerbitzuan.

b) Larriak: Bi urtera arteko baja Zerbitzuan.

c) Arinak: Urte betera arteko baja Zerbitzuan.

*15. artikulua. Preskripzioa*

1. Araudi honetan jasotako arau-hausteak eta zigorrak honela preskribituko dira:

a) Oso larriak bost urtera.

b) Larriak hiru urtera.

c) Arinak urtebetera.

2. Arau hausteak preskribitzeko epea arau-haustea egiten den egunetik aurrera kontatuko da.

3. Isunak indargabetzeko epea, isuna jartzeko egin den ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunean hasiko da.

4. Arau-hausteen eta zigorren preskripzioa Legean ezarritakoaren arabera etengo da.

*16. artikulua. Arau-hauste eta zigor independenteak eta beste ordena sektorial batzuek eska dezaketen agintepenalaren lehentasuna.*

a) Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteen ondorioz jartzen diren zigorrek ez dute loturarik izango beste antolamendu sektorial batzuekiko erantzukizunarekin lotuta egon daitezkeen egintzei dagozkien zigorrekin.

b) Administrazioaren zigor prozeduraren xede diren egintzek garrantzia penala baldin badute, administrazio prozedura geldiarazi egingo da, prozedura penalaren gaineko ebazpena eman arte.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau edo ordenantzaren gai zehatzak ezartzerako orduan sor daitezkeen zalantzak Udalak argituko ditu, beharrezkoak diren txosten teknikoak eta juridikoak egin ondoren. Udalaren akordioek amaiera emango diote administrazio bideri, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean aurreikusitakoaren arabera. Hala ere, nahi izanez gero, interesdunek birjarpen errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluei jarraiki.

Si el usuario no cumple con sus deberes contractuales, el Ayuntamiento podrá, en cualquier momento, retirarle o bloquearle la tarjeta de usuario.

A las personas físicas o jurídicas que infrinjan las normas recogidas en el artículo anterior se les impondrán las siguientes sanciones, después de tramitar el correspondiente expediente:

a) Infracciones leves: Sanciones de hasta quinientos euros (500 €).

b) Infracciones graves: Sanciones que van desde quinientos euros y un céntimo (500,01 €) a mil quinientos euros (1.500 €).

c) Infracciones muy graves: Sanciones que van desde mil quinientos euros y un céntimo (1.500,01 €) a tres mil euros (3.000 €).

Además de las mencionadas sanciones, se podrá exigir el pago de los daños y perjuicios causados.

Si se comete alguna infracción de las establecidas en el presente reglamento, el usuario podrá ser dado de baja del servicio; para ello, se tendrá en cuenta la infracción cometida.

a) Infracción muy grave: Hasta cinco años de baja del servicio.

b) Infracción grave: Hasta dos años de baja del servicio.

c) Infracción leve: Hasta un año de baja del servicio.

*Artículo 15. Prescripción*

1. Las infracciones y sanciones previstas en este reglamento prescriben:

a) Las muy graves a los cinco años.

b) Las graves a los tres años.

c) Las leves al año.

2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.

3. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la se impone la sanción.

4. La interrupción de la prescripción de infracciones y sanciones se producirá en los términos establecidos en la Ley.

*Artículo 16. Infracciones y sanciones independientes y prevalencia del orden penal exigible por otros órdenes sectoriales*

a) Las sanciones impuestas por las infracciones tipificadas en este reglamento son independientes de aquellas que correspondan cuando los actos puedan estar incursos en responsabilidad con arreglo a otros ordenamientos sectoriales.

b) Cuando los actos objeto del procedimiento sancionador administrativo tengan relevancia penal, se dejará en suspenso el procedimiento administrativo hasta la resolución del procedimiento penal.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las dudas que puedan surgir en la aplicación de esta ordenanza o sobre aspectos puntuales no regulados en la misma, serán resueltas por el Ayuntamiento, previos los informes técnicos y jurídicos que se consideren pertinentes, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo previsto por la Ley reguladora de dicha jurisdicción sin perjuicio de que los interesados puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

PRECIO PÚBLICO POR UTILIZACIÓN DEL SERVICIO DE COCHES ELÉCTRICOS "SARECAR"

| *Duración alquiler (horas)* | *Euros* |
|---|---|
| 1 | 2 euros |
| 2 | 4 euros |
| 3 o 4 o 5 | 5 euros |
| 6 o más | 5 euros + facturación por km. |

| *Facturación por kilom.* | *Euros* |
|---|---|
| De 0 a 30 km. | 1 euro |
| De 30 a 60 km. | 2 euros |
| De 60 a 90 km. | 3 euros |
| De 90 a120 km. | 4 euros |

| BONIFICACIONES | |
|---|---|
| *Cantidad reservada (por mes)* | *Descuentos* |
| De 5 a 10 reservas | 10% |
| De 10 a 15 reservas | 20% |
| De 15 a 20 reservas | 30% |
| De 20 a 30 reservas | 40% |
| Más de 30 reservas | 50% |

| *Entregas después de finalizada la reserva* | *Euros* |
|---|---|
| Finalizado el tiempo y hasta 20 minutos | 0 euros |
| Finalizado el tiempo y hasta 30 minutos | 2 euros |
| Finalizado el tiempo y entre 30 y 60 minutos | 4 euros |
| Finalizado el tiempo y más de 60 minutos | 9 euro |

| *Normativa para la cancelación de la reserva* | |
|---|---|
| Cancelación de la reserva 48 horas antes | 0 euros |
| Cancelación de la reserva entre 24 y 48 horas | 1 euros |
| Cancelación de la reserva con menos de 24 horas de antelación | Se cobrará toda la reserva |

* Las reservas se podrán hacer con un mes de antelación.
* El coche como máximo estará 24 horas fuera de su lugar.